

UDALBATZA OSOA

Bilkura-akta

Ohiko bilkura

Data: 2017ko irailaren 13a, asteazkena.

2017ko urriaren 11n akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna buru dutela, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udaltzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP), bertaratu ezina arazoitu du; eta Diana Rubio Lafuente (PP).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, aldez aurretik eta arauzko publikitatearekin. Honako hau da

Eguneko aztergaien zerrenda

1. Onestea 2017ko uztailaren 12an eginiko ohiko bilkuraren akta.
2. Onestea 2017ko uztailaren 19an eginiko ezohiko bilkuraren akta.
3. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
4. **Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**
 - 4.1. Tokiko merkataritza-sozietate bat sortzeko aukera, egun Arabako Errioxako Ur Partzuergoak ematen duen edateko uraren hornidura eta hornidura zerbitzua emateko.
5. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
6. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**
7. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea.**
 - 7.1. Fondo Formación Euskadi SLL enpresari lagatzea udaletxe zaharreko eraikinaren erabilera, Arabako Errioxarako enplegu zentro bat eratzeko. Azken puntua) Eskaerak eta galderak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2017ko uztailaren 12an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei. Ez da oharrrik egin.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2017ko uztailaren 12an eginiko bilkuraren akta, igorritako zirriborroaren arabera.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

2. Onestea 2017ko uztailearen 19an eginiko ezohiko bilkuraren akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei. Ez da oharrrik egin.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2017ko uztailearen 19an eginiko bilkuraren akta, igorritako zirriborroaren arabera.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Abstentzioak: 2 (bi); Felipe Campos Latre (PP) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstentzio horien arrazoia da zinegotzi horiek aktan islatutako bilkurara bertaratu ez direla.

3. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2017ko 168/17tik 203/17ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

4. Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.

4.1. Tokiko merkataritza-sozietate bat sortzeko aukera, egun Arabako Errioxako Ur Partzuergoak ematen duen edateko uraren hornidura eta hornidura zerbitzua emateko.

Alkate-udalburua: 2017ko uztailearen 31n, Arabako Errioxako Ur Partzuergoak eskatu zuen proposatutako lau aukeren artean erabaki bat hartzeko. Antza, arauketa hori egiteko arrazoia partzuergoen gaineko lege-eskakizun bat da.

Gamarra jauna: Alderdiarekin hitz egin dut eta gaia mahaiaren gainean uztea proposatzen dut.

Villanueva jauna: Eh Bildu Oion taldeak batzordean eskatu zuen gai hau osoko bilkuran ez lantzeko, txosten osatu bat izan arte, behar bezalako alderaketarekin; partzuergoak Udalari bidalitako jakinarazpenean proposatutako aukeretako bakoitzak berekin ekartzen duena ikusteko, bai funtzionamendu-mailan, bai lege-mailan. Orain arte, ez dugu txostenik jaso. Merkataritzako enpresa bat sortzea aukerarik txarrena da gure ustez. Izan ere, kapital erabat publikoa eduki eta neurri batean kontrolpean egon arren, zuzenbide pribatuaren menpeko merkataritzako enpresa bat izaten jarraituko luke. Aukera hori aplikatzen badugu, lehen baino gertuago egongo gara gure eskualdeko uraren kudeaketaren pribatizaziotik.

EH Bilduk uste du partzuergoak proposatutako aukeretatik onena zerbitzu-ermandade bat sortzea dela, baina hori ez dugu bozkatu. Erabateko izaera eta gaitasun juridikoa duen toki erakundea izango litzateke, Arabako Errioxako uraren kudeaketa integrala bete ahal izateko; bai eta erabat publikoa ere, xede guztietarako. Hortaz, baliabidearen eta horren kudeaketaren interes publikoa bermatuko genuke. Gainera, eraginkortasun, efizientzia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazioaren printzipioekin bat etorri funtzionatuko luke. Partzuergoaren gutunean jasotzen da tokiko merkataritza-sozietatearen proposamena Partzuergoa osatzen duten toki erakundeen bilera

batean erabaki zela, uztailaren 19an, zehazki. Baina ez dago bilera horren aktarik edo txostenik, figura juridikoak ziurtatzeko. Horrenbestez, Eh Bildu Oion taldearen proposamena da gaia mahaiaren gainean uztea.

Campos Latre jauna: Nik ere eskatzen dut gaia eguneko aztergaien zerrendatik ateratzeko, erabaki bat hartu ahal izateko lagungarriak izango zaizkigun txostenak aurkeztu arte.

Alkate-udalburua: Partzuergoak erabaki bat hartzeko eskatu du eta proposamenei dagokienez, gogoratu behar dugu bestelako toki erakunde bati atxikitzea ez dela bideragarria; izan ere, egokiena Guardiako Udala litzateke, eta ez daude horretarako prest. Zerbitzu-ermandade bat sortzea, halaber, ez da bideragarria, formula juridiko horretan ezin baitu parte hartu Aldundiak. Eta etorkizuneko Arabako Ur Partzuergoarekin bat egiteak ez du zentzurik, gaur egun ez baita existitzen. Proposamen horietatik egokiena iruditzen zaigu tokiko merkataritza-sozietate bat sortzea. Agian gaia ez da behar bezala azaldu, agian ez da ulertu; izan ere, gaur egun alkate batzuek ez dute Ekainen partzuergorako txostena aztertu ere egin. Guk ere proposatuko dugu gaia mahaiaren gainean uztea.

Aurrekariak:

- 1) Udal-taldeetako ordezkarien proposamena, gaia eguneko aztergaien zerrendatik ateratzeko. Horren xedea da erabakia hartzen laguntzeko agiriak edo txostenak jaso arte itxarotea.
- 2) Tokiko Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, bere 92. artikuluan agintzen duenarekin bat etorriz,

Hau erabaki da:

- 1) Gai hau eguneko aztergaien zerrendatik ateratzea: Tokiko merkataritza-sozietate bat sortzeko aukera, egun Arabako Errioxako Ur Partzuergoak ematen duen edateko uraren hornidura eta hornidura zerbitzua emateko.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

7.1 Fondo Formación Euskadi SLL enpresari lagatzea udaletxe zaharreko eraikinaren erabilera, Arabako Errioxarako enplegu zentro bat eratzeko.

Alkate-udalburua: Oyón-Oiongo udalerrian adin-tarte guztietan langabeziak modu izugarrian jo du; hori dela eta, udal gobernuak ahal diren ekimen guztiak jarri nahi ditu martxan arazo larri horri aurre egiteko. Eusko Jaurlaritzari proposatu genion Oyón-Oionen eskualdeko lanbide zentroa berriz irekitzeko; eta, hasiera batean, ezezko erantzuna jaso genuen arren, aukera aztertu zuten eta, askoren harridurarako, Arabako Errioxari eman ahalko zitzaiola esan ziguten... Kuadrilla ez da enplegu zentroaz arduratuko eta Fondo Formación Euskadi SLLren bitartez antolatuko da. Lagapen-akordioa eraikin urdinarentzako onetsi genuenaren antzekoa da. Lagapena Lanbideek eskatu duen baldintza bat da, Lanbideren esparruko diru-laguntza bat lortu ahal izateko. Egokitu egin behar da pixka bat; izan ere, udaletxe zaharreko beheko solairuan, hasiera batean, enplegu-anezka jartzeko asmoa zegoen. Aldundiak Oyón-Oion sartu du enplegu-anezken programan. Dena den, jakinarazten dizuet, Udalak, anezka jarriko duela Bazterra aretoaren ondoko gelan, helburu horretarako toki egokia baita.

Gamarra jauna: Ados nago ekimenarekin.

Villanueva jauna: Enplegua sortzen duten ekimenen alde gaude, baina gai hau ez zen batzordeetan landu eta akordio-proposamena gaur eman diguzue. Eta ez da adierazten zenbateko kostua izango duen Udalarentzat. Ez zaigu ongi iruditzen eta abstenitu egingo gara...

Campos jauna: Bat nator Bilduk dioenarekin.

Alkate-udalburua: Fondo Formación enpresak bere gain hartuko ditu telefonoaren, garbiketaren eta ekipamenduaren gastuak. Premiazkoa da onestea; izan ere, lagapen dokumentua aurkeztu behar da Lanbidek ematen duen laguntza izapidetzeko. Fondo Formación enpresak du eraikin urdineko Heziketa Okupazionalaren Formazio Zentroaren lagapena, baina ez modu eskusiboan. Bertan eskaintzen ditu profesionaltasun ziurtagiriaren ikastaroak; bestetik, udaletxe zaharreko beheko eraikinaren lagapena, Araba Errioxako enplegu zentroa jartzeko, ez da eskusiboa.

Aurrekariak:

1. Oyón-Oiongo Udalarentzat egokia da Oyón-Oiongo udaletxe zaharra berriz irekitzea eta bertan jartzea Arabako Errioxako enplegu zentroa eta orientazio zerbitzua.
2. Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 4ko 33/2003 Legearen 89. artikulua, administrazio eraikinak okupatzeari dagokionez, honako hau dio: administrazio zerbitzuetarako beharrezkoak ez diren esparruak ustiatu daitezke, adibidez hezkuntza eta prestakuntza beharretara zuzendutakoak, eta, gainera, herritarrentzat mesedegarriak direnak, enplegu-bilaketa sustatzeko.
3. Alkatearen proposamena.

Hau erabaki da:

1. Fondo Formación Euskadi SLL enpresari ematea udaletxe zaharreko beheko solairuaren lagapena (Plaza Nagusia), Arabako Errioxako enplegu zentroa eta orientazio zerbitzua bertan eskaini ditzan, Lanbideren bitartez.
2. Erabileraren lagapena bateragarria izan beharko da Oyón-Oiongo Udalak emandako beste erabilera batzuekin edo etorkizunean adostu ditzakeenekin, lagapenak beraien artean armonizatuz.
3. Fondo Formación Euskadi SLL enpresak ezingo du bestelako jarduerarik egin instalazioetan, Oyón-Oiongo Udalaren baimenik gabe; eta hori betetzen ez badu, erabaki hau bertan behera utziko da, kontraprestaziorik gabe.
4. Erabaki hau jakinaraztea Fondo Formación Euskadi SLL enpresari, eta Lanbideri.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstentzioak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Azken puntua) Eskaerak eta galderak

Alkate-udalburua: Batzordeetan esan zen bezala, “Txorrueta zeharkaleko irisgarritasuna hobetzeko” obraren memoria teknikoa onetsi da, Pedro Moral Rueda goi-mailako arkitektoak idatzitakoa. Lizitaziorako aurrekontu globala: 20.393.70 euro; exekutatzeko epea: 2 hilabete. Eskaerak aurkezteko epea gaur, irailaren 13an, amaitzen zen eta ez da eskaintzarik aurkeztu pasabide hori eta obra zibila egiteko. Hortaz, obra exekutatu duen enpresaren bat bilatzen saiatuko gara, obra urtea amaitu aurretik egiteko konpromisoarekin.

Villanueva jauna: Batzordeetan esan bezala, Eh Bildu Oion taldeak jaiak baloratuko ditu. Orkestei dagokienez, badirudi jendea pozik zegoela eszenatoki aldaketarekin, baina uste dugu handiegia zela eta plazaren zati handi bat okupatzen zuela. Uste dugu badaudela beste aukera batzuk entzierroak antolatzeko. Haur-ikuskizunak ongi, baina emanaldi gehiago antolatu behar dira euskaraz... Su artifizialetan ez zitzaigun gustatu alkateak garrasika esan behar izatea jendeari toki seguruetara joateko. Dastatzeak, hasieran, jendeak elkartek ezagutzeko modu gisa planteatu ziren, baina orain merkataritza kontu bat dirudite...

Tarta txapelketari ezetz esan zitzaion egun horretan beste dastatze bat zegoelako. Vianako jaietan, hainbat egunetan, bi dastatze egon ziren egun berean eta ez da ezer gertatzen. Kontraesankorra da elkarteei laguntza eskatzea eta ondoren proposamen batzuk baztertzea.

Alkate-udalburua: Tarta txapelketa proposatu zen dastatzeen egutegia itxita zegoenean. Zinegotziak dastatzea egun horretan antolatu zuen elkartearekin hitz egin zuen, eta ezetz esan zuten. Ez zen baztertu tarta txapelketa, beste data bat eskaini genuen.

Villanueva jauna: Txosnari buruz jaso ditugun agirietan ez da agertzen sare elektrikorako krokadurarik ezta asegururik ere, onetsi genuen araudiak hala eskatzen duen arren.

Alkate-udalburua: Energia elektrikoari, ferietako salerosleei eta txosnei ez zaie kobratzen aspalditik. Elektrizistek esan ziguten sarera konektatzeak ez duela esan nahi instalazioa gure gain hartu behar izatea.

Villanueva jauna: Ez dut ulertzen salerosleei zergatik ez zaien elektrizitatea kobratzen, eta txosnei buruzko araudi bat onesten dugu, eta hasieratik ez dugu betetzen.

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:55ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2017ko irailaren 26an.

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE